B1 MAILA

ZirkOrrika

Zirkorrika

Ataza hauen helburu nagusia da ikasleek 20. Korrikaren kanta ezagutzea. Aurrekoaz gain, mailari dagozkion hainbat edukiri erreparatzea ere izango dugu helburu, jakina.

Helburuoi heltzeko, ondoko atazak proposatzen dizkizugu.

1. ataza: *Aurreko Korriken kantak (4. or.)*

Ataza honen helburua 20. Korrikaren kantarekiko interesa piztea da. Horretarako, ikus-entzunezko baten bitartez aurreko Korriken kantak gogoratuko ditugu, eta, kantekin batera, Korrikei buruzko datu batzuei erreparatuko diegu.

Horrekin batera, ikasleek Korrika kanten artean gogokoena aukeratuko dute eta hautaketa horren arrazoia azalduko diete ikaskideei.

HELBURUAK

- Korrikaren kantei buruzko interesa piztea.
- Aurreko edizioetako Korriken kantak gogora ekartzea.
- Gustuak eta zaletasunak adieraztea.

IKASLEEI AIPATZEKO OHARRA: Lehenengo Korriketan ez zen Korrikaren kantu ofizialik egoten, 8. Korrikara arte gutxi gora behera. Ordura arte hainbat kantu egin ziren Korrika girotzeko (Egan, Akelarre, Oskorri...) baina ez dira Korrika zehatz baten kantak. Egin ziren garaiagatik Korrikaren batekin lotuta agertzen dira bideoan, baina berez, ez dira Korrika haien kantu ofizialak.

2. ataza: *20. Korrikaren kanta: Zirkorrika (9. or.)*

Ataza honen helburua 20. Korrikaren kanta ezagutzea da. Horretarako, bideoklipa ikusi ondoren kantaren letra osatzeko jolasa egingo dugu.

Kantan eta Korrikaren leloan agertzen den "bat" hitzaren erabilera batzuk ezagutzeko eta lantzeko ariketa egingo dugu.

Gustuko kantak elkarri aurkeztuko dizkiogu.

HELBURUAK

- 20. Korrikaren kanta ezagutzea eta ikastea.
- "Bat" hitzaren erabilera batzuei erreparatzea.

Mintzatu · Bideoa ikusi · Kanta · Idatzi
Entzun · Irakurri · Jolasa · Ariketa

1. ATAZA: aurreko Korriken kantak

A. Korriken kantak entzun, baloratu eta politena aukeratu

- Talde handian, aurreko Korriketako kantaren bat gogoratzen dugun komentatuko dugu labur.
- "Kantarik onena" ariketa aurkeztu eta hasierako azalpenak irakurri ondoren, "Korriken kantak" ikus-entzunezkoa ikusiko dugu (4.-5. or.). Ikusi bitartean, ikasleek, bakarka, kantak baloratuko dituzte: ezagutzen dituzten ala ez esango dute, kantak 1etik 10era puntuatuko dituzte eta kanta bakoitza deskribatzeko esaldi bat idatziko dute.
- Ikus-entzunezkoa amaitu ondoren, balorazioak errepasatu eta ikasle bakoitzak bere ustezko Korrika-kantarik onena aukeratuko du (5. or.).
- Ikus-entzunezkoa berriro ikusiko dugu eta ikasleek aukeratu dituzten kantei buruzko informazioa jasoko dute 6. orrialdeko fitxan. Interesatzen zaien informazioa jasotzeaz gain, ikasleek gainerako Korrikei buruzko datuei ere erreparatu beharko diete.
- Ikasleek, bakarka, aukeratu dituzten kanten aurkezpenak idatziko dituzte "Kantarik onena" ataleko instrukzioei jarraiki (6. or.).
- Ikasle bakoitzak aukeratu duen kanta aurkeztuko du eta denon artean orain arteko Korrika-kantarik onena adosten saiatuko gara.

B. Aurreko Korrikak gogoratu

OHARRA: Ariketak memoria kontu hutsa iruditu arren, kasu askotan arreta baino ez da jarri behar erantzuna asmatzeko: data batzuk ezinezkoak dira (apirilaren 31, azaroaren 31 eta otsailaren 30a), beste batzuk atzetik aurrera doaz (1984ko azaroaren 28tik urriaren 7ra), tarteak luzeegiak dira (irailaren 25etik azaroaren 5era), Gabonekin bat datoz... Pertsonaia eta ogibide batzuk ere ez datoz bat (Jose Miguel Barandiaran harri-jasotzailea, Jose Angel Iribar hizkuntzalaria...)... Horrexegatik, ariketa hasi aurretik komenigarria da ikasleei balizko erantzunak arretaz irakurtzearen garrantziaz ohartaraztea.

- Ikasleek, binaka, "Aurreko Korrikei buruz" ariketa egingo dute (7.-8. or.). Ariketa talde handian zuzenduko dugu. Erantzuten hasi aurretik, testua, galderak eta erantzunak ozen irakurriko ditugu guztion artean eta zalantzak argituko ditugu.

ERANTZUNAK:

1. 1983ko abenduaren 3tik 11ra.
2. Ez, Bilbon amaitu zen bigarrena izan zen. Lehenengo Korrika ere Bilbon bukatu zen.
3. Zazpi: 1. Korrika, 3. Korrika, 5. Korrika, 8. Korrika, 10. Korrika, 14. Korrika eta 19. Korrika.
4. 3. Korrikan, Gabriel Aresti idazlea omendu zuten.
5. Arantzazun hasi zen.
6. 1997ko martxoaren 14tik 23ra egin zen.
7. Euskal Herria Korrika.
8. Luis Villasante.
9. Enrique Villarreal, *El Drogas*.
10. 2007ko martxoaren 22tik apirilaren 1era.
11. Bizkaian.
12. Lau adiz: 2. Korrikan, 6. Korrikan, 8. Korrikan eta 11. Korrikan.

KANTARIK ONENA

Ondoko azalpenak irakurri ondoren, ikusi "Korriken kantak" ikus-entzunezkoa eta baloratu aurreko edizioetako kantak.

KANTA	EZAGUTZEN DUZU?	BALORATU 1ETIK 10ERA (1: ez zait batere gustatu; 10: asko gustatu zait).	IDATZI ESALDI BAT KANTA DESKRIBATZEKO
1. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
2. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
3. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
4. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
5. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
6. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
7. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
8. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....

KANTA	EZAGUTZEN DUZU?	BALORATU 1ETIK 10ERA (1: ez zait batere gustatu; 10: asko gustatu zait).	IDATZI ESALDI BAT KANTA DESKRIBATZEKO
9. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
10. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
11. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
12. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
13. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
14. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
15. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
16. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
17. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
18. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....
19. KORRIKA	BAI EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10	....

→ Korrika-kanten artean politena aukeratzekotan, zein aukeratuko zenuke?.

.....

.....

Ikusi berriro "Korriken kantak" ikus-entzunezkoa eta jaso aukeratu duzun kantari buruzko datuak.

Noiz egin da Korrika hori?

.....

Nondik nora joan da?

.....

Nork egin zuen kanta?

.....

Zein izan da Korrikaren leloa?

.....

Nor omendu du Korrika horrek?

.....

Orain arteko Korrika-kanta onena aukeratu duzu. Orain, idatzi kanta horren aurkezpena.

a. Aurkeztu kanta labur: Nork egin du? Noiz? Nolakoa da?...

b. Gogoratu labur kantari dagokion Korrika: Noiz izan da? Nondik nora joan da?...

Aurreko Korrikei buruz

Irakurri ondoko testua eta erantzun galderei.

3. Korrika

Egan taldeak egin zuen Korrikaren kanta honela hasten zen:

"Korrika goaz iritsi arte
gure herriko helmugara.
Horretarako lehen urratsa
indartu behar euskara"

3. Korrika zen hura, Baionan hasi eta Bilbon amaitu zen. Baina zer gehiago dakizu Korrika hari buruz?

1. Noiz egin zen 3. Korrika?

a. 1984ko azaroaren 28tik urriaren 7ra ..... ☐
b. 1983ko abenduaren 3tik 11ra ..... ☐
c. 1982ko martxoaren 11tik 22ra ..... ☐

2. Bilbon amaitu zen lehen Korrika izan zen?

BAI ..... ☐ EZ ..... ☐

3. Zenbat Korrika amaitu dira Bilbon orain arte?

a. Hiru ..... ☐ **b.** Bost ..... ☐ **c.** Zazpi ..... ☐

4. Badakizu nor omendu zuten Korrika hartan?

a. Gabriel Aresti poeta ..... ☐
b. Jorge Oteiza eskultorea ..... ☐
c. Jose Miguel Barandiaran harri-jasotzailea ..... ☐

10. Korrika

10. Korrikaren kantak "Korrika" hitzaren letrekin jolasten zuen. Honela zioen azken bi hitzei buruz:

"K" azkenik sartu da Bilboko kaleetan
"A" ikasten hasi da, non eta AEKn

Bai, 10. Korrika ere Bilbon amaitu zen. Baina badakizu...

5. Non hasi zen?

a. Karrantzan ..... ☐ **b.** Arantzazun ..... ☐ **c.** Urepelen ..... ☐

6. Noiz egin zen?

a. 1997ko martxoaren 14tik 23ra ..... ☐

b. 1997ko apirilaren 31tik maiatzaren 10era ..... ☐

c. 1997ko irailaren 25etik azaroaren 5era ..... ☐

7. Gogoratzen duzu 10. Korrikaren leloa?

a. Euskahaldun ..... ☐

b. Euskal Herria Korrika ..... ☐

c. Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz ..... ☐

8. Hamargarren Korrikak hizkuntzalari ezagun bat omendu zuen. Nor?

a. Luis Villasante ..... ☐ **b.** Xabier Lete ..... ☐ **c.** Jose Angel Iribar ..... ☐

15. Korrika

15. Korrikan, euriaren eta elurraren aurka borrokatu behar izan ziren korrikalariak. Urte horretako kantak Heldu zuen izena.

"Heldu, heldu euskarari
heldu, heldu Korrikari
erabiliz barra-barra
Karrantzatik Iruñera"

Kanta Niko Etxarten estudioan grabatu zen, eta, Niko Etxartekin batera, beste rockzale ezagun batek ere kantatu zuen.

9. Nor izan zen beste rockzale hori?

a. Mikel Laboa .... ☐ **b.** Enrique Villarreal, *El Drogas* .... ☐ **c.** Kepa Junkera .... ☐

10. Noiz egin zen 15. Korrika

a. 2007ko otsailaren 19tik 30era ..... ☐

b. 2007ko azaroaren 20tik 31ra ..... ☐

c. 2007ko martxoaren 22tik apirilaren 1era ..... ☐

11. Zein herrialdetan hasi zen 15. Korrika?

a. Bizkaian ..... ☐ **b.** Gipuzkoan ..... ☐ **c.** Araban ..... ☐

12. 15. Korrika Iruñean amaitu zen hirugarren aldiz. Baina badakizu zenbat aldiz hasi den Korrika bertan?

a. Behin ere ez .... ☐ **b.** Behin .... ☐ **c.** Bi aldiz .... ☐ **d.** Lau aldiz .... ☐

2. ATAZA: 20. Korrikaren kanta: Zirkorrika

A. Kanta ikasten

- "Zirkorrika" bideoklipa birritan ikusiko dugu.
- 20. Korrikaren kantaren letra ikasteko, "Zirkorrika osatzen" memoria-jokoa egingo dugu. Jokoaren arauak honako hauek dira:

"Zirkorrika osatzen" memoria-jokoa

Joko honetan, "Zirkorrika osatzen" PDFa erabiliko dugu ordenagailuaren pantailan, telebistarenean edo beste edonon jarrita ikasle guztiek aldi berean ikus dezaten.

Jokoaren helburua

- "Zirkorrika" kanta hiru ataletan banatu dugu. Atal bakoitzean kantaren estrofa bi daude, eta jokoaren helburua da atalak osatzeko falta diren hitz guztiak segidan gogoratzea.

Jokoaren arauak

- Ikasleek binaka jokatuko dute. Eskolan ikasle gutxi baditugu, bakarka joka dezakegu. Jokoa irakasleak bideratuko du.
- "Zirkorrika osatzen" PDFa pantailan jarriko dugu. Jarri dokumentua "aurkezpena" moduan pantaila guztia bete dezan.
- Pasa itzazu orriak banan-banan hutsunedun lehenengo pantaila agertu arte.
- Lehenengo jokalariak lehenengo hutsunea betetzen ahaleginduko dira pantailan bertan agertzen diren hitzen artean falta dena bilatuz.
- Jokalariek hitza asmatu badute (erantzunak jarraian dituzue), hurrengo orrira pasatuko gara, hurrengo hutsunea betetzen saiatuko dira, eta horrela jarraituko dute hitzen batekin huts egin arte. Asmatzen ez badute, ordea, txanda hurrengo jokalariei pasatu beharko diete, eta PDFa atalaren hasieraraino eramango dugu berriro ere atal horren lehenengo hutsunetik hasteko.
- Atal baten hutsune guztiak jarraian osatzeko gai diren jokalariek puntu bat jasoko dute. Jokoa puntu gehien lortzen dituen bikoteak irabaziko du

1. ATALA

Hizkuntzaren malabaristak,
akrobatak, trapezistak,
herri honen **ilusionistak**...
bidera atera gara,
mundura atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bat, **izan** bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, **denok** bat,
bat eta **batzuk** gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.

2. ATALA

Bi urteko ekilibristak,
su-irensle **optimistak**,
jaiotzetik ilusionistak...
bidera atera gara,
Korrika atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Atso-agure kontortsionistak,
pailazoak, eskapistak,
euripean ilusionistak...
bidera atera gara,
mundura atera gara,
herriz herri igaroko gara!

3. ATALA

Ahots kordan **funanbulistak**,
fakirrak ta alkimistak,
ofizioz ilusionistak...
bidera atera gara,
korrika atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bizirauten **espezialistak**,
bi buruko aktibistak,
bihotzaren ilusionistak...
bidera atera gara,
herriz herri ibiliko gara!

- Talde handian, kantari buruz mintzatuko gara: gustatu zaigun, Korrikarako egokia iruditu zaigun, zergatik...

B. BAT hitzaren esanahi anitzak

- Ikasleek, bakarka, "BAT hitzaren esanahi anitzak" ariketa egingo dute (11.-12. or.). Ariketa talde handian zuzenduko dugu.

ERANTZUNAK:

-ekin batean/batera

*jaietara ere ama**rekin batera** joaten da*

*kutxa**rekin batera** eskutitz bat bidali nion.*

*eta hau esate**arekin batera**, ispilua puskatu eta hilik erori zen*

-en bat

*hamar**ren bat** lagun bildu ginen*

*kezka**ren bat** izango du*

*egun**en batean** gurera afaltzera etorri behar duzu*

bata bestearen ondoren

***bata bestearen ondoren** lapur guztiak harrapatu zituzten*

baten bat

*hori ez zegoen horrela, **baten batek** puskatu du*

batera eta bestera

*telefonoz antolatuko dut dena, **batera eta bestera** ibili gabe*

batez beste

*zaharragoak dira, **batez beste**, gurasoak irakasleak baino*

- Nahi izanez gero, ataza amaitzeko kantaren letra banatu (14. or.) eta bideokliparekin batera kanta dezakegu.

C. Nire gustuko musika

- "Nire gustuko musika" ariketaren sarrera ozen irakurriko dugu eginkizuna ezagutzeko (13. or.).
- Ariketaren sarreran eskatzen den bezala, ikasleek, eskolatik kanpo, gustuko kanta bana aukeratu eta horren aurkezpena egiteko informazioa bilduko dute.
- Aukeratutako kantaren aurkezpena idatziz prestatuko dute. Lan hau eskolatik bertan edo, nahiago izanez gero, eskolatik kanpo bidera dezakegu. Testuak irakasleak zuzenduko ditu egoki deritzon moduan.
- Ikasleek aukeratu dituzten gogoko kanten aurkezpenak egingo dituzte eskolan. Eginkizun hau egun bakarrean edo egun batuetan egin dezakegu.
- Talde handian, entzundako kantei eta aurkezpenei buruz mintzatuko gara: gustukoak izan ditugun, ezagunak diren…

BAT HITZAREN ESANAHIA

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara, euskara bat, mundu bat.

"Bat" hitza askotan erabiltzen da 20. Korrikaren kantan. Izan ere, hitz horrek erabilera ugari ditu euskaraz. Jarraian, erabilera horietako batzuk ikasiko ditugu.

Elhuyar hiztegian "bat" hitza bilatzen baduzu, honelakoak aurkituko dituzu, besteak beste:

Expressions [+]

bat etorri

estar de acuerdo, estar conforme, convenir; coincidir

bat ez datorrela *adierazteko bidali du eskutitza:* ha enviado la carta para expresar que no está de acuerdo

zurekin ***ez nator bat****:* no estoy conforme contigo

Jarraian, "bat" hitzaren beste erabilera interesgarri batzuk dituzu. Irakur itzazu eta saia zaitez, goiko adibidean bezala, espresioak dagozkien lekuan kokatzen.

BATEZ BESTE
-EN BAT
BAT EDO BESTE
BATERA ETA BESTERA
-EKIN BATEAN/BATERA
BATEN BAT
BAT-BERA
BATIK BAT
-Z BATERA
BATA BESTEAREN ONDOREN
BATEKOZ BESTE(RA)
BERE BATEAN
BAT-BANAKA
BAT-BATERA

bat

Expressions [+]

_____

1. junto con, en compañía de; al mismo tiempo que

jaietara ere ama..... joaten da: incluso a las fiestas acude en compañía de su madre

kutxar..... eskutitz bat bidali nion: le mandé la caja junto con una carta

2. (aditz-izenari loturik) tan pronto como, nada más, al tiempo que

eta hau esate....., ispilua puskatu eta hilik erori zen: y al tiempo que dijo esto se rompió el espejo y cayó muerta

bat

Expressions [+]

---

1. (zenbakiari loturik) aproximadamente, poco más o menos, unos, unas

hamar ..... lagun bildu ginen: nos reunimos unos diez amigos

2. alguno, -a

kezka..... izango du: tendrá alguna preocupación

egun..... gurera afaltzera etorri behar duzu: algún día tienes que venir a cenar a nuestra casa

---

sucesivamente, uno detrás de otro

..... lapur denak harrapatu zituzten: sucesivamente cogieron a todos los ladrones

---

alguien; alguno, -a; algún/alguno que otro

hori ez zegoen horrela, ... puskatu du: eso no estaba así, alguien lo ha roto

---

de un lado a otro, de un lado para otro

telefonoz antolatuko dut dena ..... ibili gabe: lo organizaré todo por teléfono sin moverme de un lado para otro

---

Por término medio

zaharragoak dira, ..., gurasoak irakasleak baino: son mayores, por término medio, los padres que los profesores

Nire gustuko musika

Irakurri ariketa honen jarraibideak, eta presta ezazu gogoko kanta baten aurkezpena.





20. Korrikaren kanta entzun berri dugu. Gustukoa izan duzue? Zuetako askok, hala espero dugu, behintzat, baietz erantzungo diguzue; beste batzuek, ordea, ez duzue horren gustukoa izango, gustuak oso kontu pertsonalak baitira.

Bada, ariketa honetan horri buruz mintzatuko gara: musika-gustuei buruz.

Eskolatik kanpo egiteko:

A. Aukeratu oso gustuko duzun kanta bat. Ahal izanez gero, aukera ezazu musikari euskaldunen kantaren bat.

B. Bila ezazu kanta horren aurkezpena egiteko euskarriak: kanta bera, letra, musikariei buruzko informazioa…

C. Idatzi aukeratu duzun kantaren aurkezpena: nolakoa den, norena den, zer dioen… Ez ahaztu idatzi duzuna berrikustea eta zuzentzea irakasleari eman aurretik.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Eskolan egiteko:

Aurkez ezazu kanta eta jarri zure ikaskideek entzun dezaten.

20. Korrikaren kanta

ZIRKORRIKA

Hizkuntzaren malabaristak,
akrobatak, trapezistak,
herri honen ilusionistak...
bidera atera gara,
mundura atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.

Bi urteko ekilibristak,
su-irensle optimistak,
jaiotzetik ilusionistak...
bidera atera gara,
Korrika atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Atso-agure kontortsionistak,
pailazoak, eskapistak,
euripean ilusionistak...
bidera atera gara,
mundura atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.

Ahots kordan funanbulistak,
fakirrak ta alkimistak,
ofizioz ilusionistak...
bidera atera gara,
Korrika atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bizirauten espezialistak,
bi buruko aktibistak,
bihotzaren ilusionistak...
bidera atera gara,
herriz herri ibiliko gara!

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.